

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AZAZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Kontzejuaren etxebizitza bat errentan ematea

Azazetako Kontzejuak, 2020ko otsailaren 16ko bileran, erabaki du bere jabetzako etxebizitza baten errentamendua esleitzeko prozedura hastea eta errentaria hautatzeko oinarriak arautzen dituen baldintza agiria onestea.

#### Oinarriak

##### 1. Xedea

Kontzejuaren jabetzako etxebizitzaren errentamendua, 84,59 m<sup>2</sup> dituen, eta Mediodia kaleko 8. zenbakian dagoena (kastroko 4 poligonoko 4 lurzatia). Eraikina ez dago altzariz hornituta.

##### 2. Eskatzaileek bete beharrekoak

Adinduna edo emantzipatua izatea, gaitasun juridiko osoa eta jardutekoa izatea, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 71. artikuluan legez kontratatzeko xedatutako debekuren bat ez izatea.

##### 3. Kontratuaren iraupena

Zazpi urte.

##### 4. Agiriak eskuratzea

Oinarriak arautzen dituen agiria eskuragarri egongo da Arraia-Maeztuko Udalaren bulegoetan (La Estación kalea 13, PK 01120 Arraia-Maeztu), jendaurreko ordutegian, 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, hamabost egun naturaleko epean, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik hasita.

Era berean, Azazetako Administrazio Batzarreko kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Euskadiko kontratazio publikoaren plataforman.

##### 5. Eskakerak aurkeztea

Eskakerak Arraia-Maeztuko Udalaren bulegoetan aurkez daitezke (La Estación kalea 13, PK 01120 Arraia-Maeztu), jendaurreko ordutegian, 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, hamabost egun naturaleko epean, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik hasita. Azken egun hori larunbata edo egun baliogabea balitz, hurrengo egun baliodunean ere aurkeztu ahal izango lirateke.

Eskaintzak postaz ere aurkeztu ahalko dira. Halakoetan, eskaintza noiz bidali den adierazten duen posta bulegoaren data egiaztatu beharko da, kasuan kasuko frogagiriarekin, eta egun horretan bertan adierazi beharko zaio kontratazio organoari. Baldintza horiek ez badira betetzen proposamena epez kanpo jasotzen bada, ez da onartuko. Dena den, eskaintzak aurkezteko epea bukatzen denetik 10 egun igarotakoan, ez da onartuko postaz bidalitako eskaintzarik.

##### 6. Fidantza

Bi hileko errentari dagokion behin betiko fidantza jarri beharko da eskudirutan.

**7. Esleipenerako irizpideak: Lizitazio oinarria**

— Preziorik onena. 90 puntu.

Lizitazio oinarria urtean hiru mila eta seiehun euroko errentan ezartzen da (hileko epeetan ordainduko da). Gehiago eskainiz hobetu ahalko da.

— Etxebizitza ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzeko konpromisoa. 10 puntu.

**8. Eskaintzak irekitzea**

B gutun azalaren proposamenak edo eskaintza ekonomikoak jendaurrean irekiko dira Azazetako Kontzejuaren Etxean (Errota Plaza), hamargarren egun naturaleko 15:00etan, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Azken egun hori larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea. Eta egun eta ordu horretan ireki ezin bada, egun eta ordu aldaketa jakinaraziko zaie lizitatzailerei.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Azazeta, 2020ko otsailaren 17a

*Errejidore-lehendakaria*  
**RAÚL RITUERTOTURRADO**